



## GOBERNU BATZARRA

2024.01.29

<b>Alkatea:</b> Angel Martinez de Rituerto Arregi	Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren hogeita bederatzian, 18:30ean, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ezohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:
<b>Bertaratutako zinegotziak:</b> Kristina Pelaez Errazkin Ander Figuerido Zubiria Estitxu Kortejarena Ugarte	1. Akta hau onartzea: 2024ko urtarrilaren 23koa.
<b>Ez dira bertaratu:</b> Aitor Agirresarobe Murgi Goiuri Ezeiza Arandia	2. Onartzea 2024 urteko Udaltzaingoaren egutegia.
<b>Idazkaria:</b> Begoña Garmendia Vazquez	3. Dekretu hauen berri ematea: 2024/125 Dekretua: 2023/67 faktura zerrenda.
<b>Kontu-hartzaile akzidentala:</b> Paulino Alonso Eraso	

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO URTARRILAREN 23KOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

### **2. ONARTZEA 2024 URTEKO UDALTZAINGOAREN EGUTEGIA.**

Udaltzaingoa Sailak Udaltzaingoaren 2024ko egutegia aurkeztu du. Egutegi horretan, udaltzainburuak, aldaketa nagusi gisa, lantaldeak 4 kidekoak izan beharreen (agente lehena gehi hiru udaltzain), hiru kidekoak izatea proposatu du (agente lehena gehi bi udaltzain). Udaltzainburuak, gainera, asteburu eta jaiegunetan goizeko eta arratsaldeko txandan jarduten duten agenteen kopurua handitzea proposatu du,



zerbitzua hobetzeko. Aldaketa horren arrazoiak txostenean jaso ditu, baina oro har, lan-txanda sistema honekin zerbitzu egokiagoa eta hobe emango dela argudiatzen du, eguneko lan-txandak indartuko direlako eta kalean udaltzainen presentzia areagotu egingo delako.

Aldaketa honek ondorioak izango ditu Udaleko Lanpostu Zerrendan. Hori horrela, udaltzain lanpostuen zenbait dotazioetan, aurrerago zehaztuko den moduan, egokitzapenak egingo dira; izan ere, lan-txandak aldatzean, lanpostuen balorazioan finkatuta zeuden ezaugarriak egokitu eta eguneratu egin beharko dira.

Gauzak honela, hauexek dira proposatzen diren **aldaketa nagusiak**:

**Lehena.**- Hasieran adierazi den bezala, lan txandei dagokionez, bi aldaketa nagusi proposatu dira:

- Batetik, orain arte goiz, arratsalde eta gaueko lan txandan aritzen ziren dotazioak lau udaltzainez osatuak zeuden (agente lehena gehi hiru udaltzain), eta egutegi berrian, hiru udaltzainez (agente lehena gehi bi udaltzain) osatuta egongo dira.

- Bestetik, goiz, arratsalde eta gaueko bost talde daudenez, talde bakoitzetik udaltzain bat, guztira bost, goiz eta arratsaldeko eta asteburuetako lan-txanda sistema berrira pasatuko dira (seigarren taldera, alegia). Aldaketa horrek udaltzainen lanpostuen lan baldintzetan eta lanpostu zerrendan aldaketak ekarriko ditu; izan ere, lan txanden sisteman aldaketa bat proposatzen baita. Aldaketa hauek, bigarren puntuan adierazten den bezala, bost udaltzainen dotazioetan aldaketak ekarriko dituzte; baita lanpostuen balorazioan ere (zehazki, lanpostu horien ordainsarien destino osagarrian eta berariazko osagarrian).

**Bigarrena.**- Horretarako, jadanik bi aldaketa nagusi bideratu dira:



- Batetik, 2024ko Lanpostu Zerrendaren aldaketa onartu zen 2024ko urtarrilaren 25ean Udalbatzak egindako bilkuran; hain zuzen ere, honela:

- a) «Honako bost "Udaltzain G/A/G" lanpostu hauen ezaugarriak aldatzea (4.105 kodea dutenak) eta "Udaltzain M/T" lanpostu hauetan bihurtzea (4.108 kodea).
- b) Udaltzain "irratiko agente" lanpostu bat, "udaltzain" lanpostuan (4.108 kodea) bihurtzen da eta lanpostu berriak goiz, arratsaldeko eta asteburuetako lan-txanda sistema berrira pasako dira eta kasu honetan, ordainsari berria 43.683,02 euro lirateke.
- c) "Udaltzain" lanpostuetan, baldintzen atalean gidabaimenak aldatzea proposatzen da, gaur egun udalak duen motoak gidatu ahal izateko; honela, orain arte, A2 eta B+E gidabaimena baldintza bezala agertzen baziren ere, orain A1 edo A2 eta B+E gidabaimenak eskatuko dira baldintza gisa (Kodeen legendan. 17 zenbakian).
- d) "Udaltzain M/T" lanpostuen balorazioa behin-behineko izaeraz onartzea, dagokion prozedura izapidetzen den bitartean».

- Bestetik, seigarren lantaldea hornitzeko jarraibideak eta irizpideak finkatu dira: horretarako, Alkatetzak, 2024ko urtarrilaren 15eko ebazpen bidez, lanpostu horiek betetzeko irizpideak onartu zituen eta interesdunek eskaerak aurkeztu ondoren, Balorazio Batzordeak, 2024ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, lehen bost izangaien zerrenda hurrenkera proposatu du interesa duten udaltzainak seigarren lan-txandara pasa ahal izateko; hain zuzen ere hauexek: F.J.M.S. (071G0012), I.A.Z. (071G0023), J.A.G.L. (071G0052), M.C.C. (071G0033) eta I.G.M. (071G0028).

Erreserba moduan, zerrendan seigarrena geratu den I.V.G. (071G0053) udaltzaina dago.

**Hirugarrena.**- Lanpostuen balorazioari dagokionez, 6. lan-txandako agenteek asteburuetan lan egin beharko dutenez, balorazioaren berrikuspen bat egitea proposatu da, behin-behineko izaeraz, edukiko dituzten lan txandei egokitzeko. Hala, bi aldaketa nagusi proposatzen dira:



- Batetik, esperientziaren faktorean, hiru lan-txanda dituzten agenteen puntuaketa berbera izatea; hau da, 75 puntu izatea (orain arte 50 puntu zituzten).

- Bestetik, lanaldiaren faktoreari dagokionez, 6. taldeko lan-txanden aldaketen ondorioz, asteburuetan (larunbat eta igandea) egunez hamabost egunetik behin lan egingo dutenez, lanaldi faktorea J5 faktoretik J6 faktorera igoko da, balorazio eskuliburuaren aplikazioaren ondorioz; hau da, urteko edozein egunetan goiz eta arratsaldean lan egitearen ondorioz aplikatuko da.

Horiek horrela, hauxe da proposamena:

<b><u>Faktorea</u></b>	<b><u>Oraingo balorazioa</u></b>	<b><u>Balorazio proposamen berria</u></b>
Espezializazioa	100	100
Esperientzia	50	75
Agintea	0	0
Oihartzuna	100	100
A. intelektualak	25	25
A. Fisikoa	25	25
Nekagarritasuna	50	50
Arriskugarritasuna	75	75
Lanaldia	125	175
Dedikazioa	150	150

Beraz, seigarren lan-txandako langileek, behin-behineko izaeraz, honako soldata berri hau izango dute:



<b>LANPOSTUA</b>	<b>URTEAN</b>	<b>ALDEA</b>
UDALTZAINA (G/A/G)	46.554,48	
UDALTZAINA (G/A) zaharra 2023	42.029,16	
UDALTZAINA (G/A) berria 2024	43.683,02	1.653,86

**Laugarrena.-** Udaltzainen egutegiarekin batera doan testua ere onartu eta berritu da.

**Bosgarrena.-** Ordezkaritza sindikalarekin negoziazioa.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 37.1 artikulua (m) atalean xedaturikoaren arabera, besteak beste, giza baliabideetako egutegiak eta ordutegiak pertsonalaren ordezkariarekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz.

Hori horrela, udaltzaingoak ERNE eta LAB sindikatuetan dituen ordezkari sindikalekin bilera hauek egin dira:

- 2023ko urriaren 19an, alkateak 2024ko egutegian txertatuko ziren aldaketaren berri eman zien udaltzaingoak LAB eta ERNE dituen ordezkari sindikalei. Hiru lan-txandako 5 taldeak hiru udaltzaineko talde (agente lehena eta bi udaltzain) bihurtzea, eta bi txandatan arituko diren 12 udaltzaineko taldea osatzea proposatu zuen. Hala, alkateak asteburuetan 12 orduko txandak egingo zituztela jakinarazi zien, bai eta atsedenen dinamika zein izango zen ere.

- 2023ko azaroaren 29an, alkateak, udalbatza aretoan, udaltzain guztiei aurkeztu zien 2024ko egutegi proposamena eta egutegiarekin batera onartzen den testua.



- 2023ko abenduaren 5ean, alkateak udaltzaingoak LAB eta ERNE dituen ordezkariekin beste bilera bat egin zuen. Bertan, ordezkari sindikalek 2024rako egutegi osoa eskatu zuten txanda guztien zehaztapenak jakiteko, eta txostena eskatu zuten lan txanden aldaketaren ondorioz ordainsariak nola egokitu diren jakiteko. Halaber, inauterietan eta sanjoanetan egindako txanda aldaketak ordaintzeko eskaera egin zuten. Funtzioen banaketa nola egingo den ere galdetu zuten, eta formakuntza plana izatea eskatu zuten.

- 2023ko abenduaren 13an, alkateak plantillako agente lehenekin bilera egin zuen.

- 2023ko abenduan ere, alkateak udaltzainen ordezkari sindikalei e-postaz adierazi zien, datak zein ziren ikusita, 2024rako proposatutako egutegiarekin aurrera egingo zutela, baina eraginkortasuna aztertzeko konpromisoa hartzen zuela. Halaber, alkateak egutegian proposatzen diren aldaketak helarazi zizkien (gutxieneko zerbitzuak eta proposatutako ordutegia: 06:00-14:00, 14:00-22:00 eta 22.00-06:00 hiru txandatakoak, eta asteburuetan 06:00-18:00 eta 18:00-06:00). Alkateak ordutegi horien malgutasuna aztertzeko borondatea erakutsi zuen; hau da, goizean sartzeko ordutegia 30 minutu atzeratzea, esate baterako.

Bestalde, alkateak ERNE eta LABeko ordezkari sindikalek egindako galderei honako erantzuna eman zien, zehazki:

- Funtzioen banaketa ez dagoela egutegiarekin lotuta.
- Armen erregelamendua eta erabilerarako txostenak ez daudela egutegiarekin lotuta.
- Agente lehenekin koordinatzeko bilerak ere ez duela egutegiarekin loturarik.

- 2023ko abenduaren 14an, udaltzainek asanblada izan zuten: udaltzainen plantillaren gehiengoak egutegiaren kontra bozkatu zuen eta egutegia onartzeko proposamena atzeratzearen alde azaldu ziren.

- 2023ko abenduaren 19an, alkateak, Giza Baliabideetako arduradunak eta udaltzaingoaren ERNE eta LABeko ordezkari sindikalek beste bilera bat egin zuten. Bilera hartan, Giza Baliabideetako arduradunak idatziz eman zien aipatutako seigarren lan-txandaren behin-behineko balorazio proposamen berria. Halaber, egutegia



urtarrilaren 1ean martxan jarri beharrean, 2024ko urtarrilean ordura arteko egutegiarekin jarraitzea eta bi aldeak akordio bat lortzen ez bazuten, otsailean egutegi berria martxan jartzea proposatu zuten, eta alkateak onartu egin zuen eskaera.

- Azkenik, Udaleko Negoziazio Mahaian ere 2024ko urtarrilaren 26an negoziatu da gai hau.

Hau guztia kontua hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

## ERABAKI DU

**LEHENIK.**- 2024ko otsailaren 1etik aurrera, udaltzaingoaren 2024ko egutegia onartzea eta indarrean sartzea, eta dokumentu honi eranstean zaizkion egutegiarekin batera doan testu hau ere onartzea:

### **«UDALTZAINGOAREN 2024RAKO INSTRUKZIO OSAGARRIA**

#### **1.- Sarrera**

*Tolosako Udaleko udaltzaingoaren plantilla 30 (+1) langilez osatua dago. Langile hauek osatzen duten egitura funtzionala honelaxe dago definituta:*

- *Hamabost (15) agentek 3 errelebotako 5 lan-talde osatzen dituzte, eta errelebo bakoitzean agente lehen bat dago.*
- *Hamabi agentek (11+1) osatzen dute 6. lan-taldea, goizeko eta arratsaldeko errelebotan banatuta. Goizeko astean, larunbatetan eta igandeetan lanaldia 12 ordutara. Honako funtzio hauek betetzen dituzte:*

- *Hamabost (15), 3. erreleboetako agenteak dira.*



- Hamabi, hamaika, 6. taldeko agenteak dira + Trafiko koordinatzaile bat (1).
- Bi (2), agente administrariak dira.
- Ofizialorde bat (1).
- Ofizial bat (1).

-----

Lan egutegia planifikatu da irizpide hauek kontuan hartuz:

- Urteko ordu kopurua..... 1.592.
- Oporretarako ordu kopurua...: 168
- Lan egutegian planifikatutako orduak .....: 1.760

**2.- Lan txandak**

**A) Zuzendaritza:**

Ofizial eta Ofizialordeak goizez beteko dute bere lan jarduna eta zerbitzu beharraren arabera, arratsalde, gauetz edo asteburuetan deituko zaie.

**B) Administrari agenteak**

Goizez egingo dute lana, zazpi orduko lanaldietan, astelehenetik ostiralera:

- U-17: 09:00etan sartuko da eta 16:00etan aterako da.
- U-02: 07:00etan sartuko da eta 14:00etan aterako da.
- Oporretan eta zubietan: Txandakatu egingo dira beti bat lanean egoteko.

Lau asteko lan-zikloak

**Administrari 1**

L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D
M	M	M	M	M			M	M	M	M	M			M	M	M	M	M			M	M	M	M	M		

**Administrari 2**

L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D
M	M	M	M	M			M	M	M	M	M			M	M	M	M	M			M	M	M	M	M		





D) Bi txandatako langileak (6. Taldea).

- **Goizez:** astelehenetik ostiralera. Laneguna zortzi ordukoa izango da. 06:00etan sartuko dira eta 14:00etan aterako dira. Asteburuan, hamabi (12) ordu egingo dituzte lan larunbatean eta beste hamabi (12) igandean. 06:00etan sartuko dira eta 18:00etan aterako dira. Hurrengo astean atsedena izango dute.
- **Arratsaldez:** astelehenetik ostiralera egingo dute lan. 14:00etan sartu eta 22:00etan atera.
- **Irratiko agentea (U-19):** jubilatatu bitartean, salbuespenez, lanpostu hau mantenduko da eta honako ordutegia izango du:
  - Goizez 07:00etatik 14:00etara izango da eta 13:45etatik 20:45etara arratsaldez, astelehenetik ostiralera.
  - Lau (4) larunbatetatik, batean (1) lan egingo du.

E) Hiru txandatako langileak:

- **Ordutegiaren sekuentziak:**
  - **Goizez:** astelehenetik ostiralera. Laneguna zortzi ordukoa izango da. 06:00etan sartuko dira eta 14:00etan aterako dira. Asteburuan, hamabi (12) ordu egingo dituzte lan larunbatean, eta beste hamabi (12) igandean. 06:00etan sartuko dira eta 18:00etan aterako dira. Hurrengo astean atsedena izango dute.
  - **Arratsaldez:** astelehenetik ostiralera, zortzi (8) orduko laneguna izango da. 14:00etan sartu eta 22:00etan atera. Asteburuan jai.
  - **Gauetz:** astelehenetik ostiralera, zortzi (8) orduko laneguna izango da. 22:00etan sartuko dira eta 06:00etan aterako dira. Asteburuan hamabi (12) ordu lan egingo dute larunbatean, eta beste hamabi (12) igandean. 18:00etan sartuko dira eta 06:00etan aterako dira. Hurrengo astean atsedena izango dute.
- ❖ **Egutegi hau ez da finkoa izango.** Zerbitzuaren beharren arabera egutegi hau alda daiteke, beti ere hilabete bateko epearekin jakinarazita. Urte osoan sartu behar diren orduak betetzen ez badira, egun gehigarriak ezarriko dira.



*F) Gutxieneko zerbitzuak:*

*\*3. errelebotako taldeetan: 2 agente*

*\*6. taldean: 3 agente*

*\* Egoera justifikatuetan eta salbuespenez, udaltzainburuak erabaki dezake aurreko bi taldeetako gutxienekoa 5ekoa beharrez, 4koa izatea. Bost agente lanean aurreikusita dauden egunetan, gutxieneko zerbitzua 4 agentekoa izango da.*

*\*Administrariak: langile bat.*

*\*Gaez: 2 agente.*

*\*Azoka berezietan eta zenbait ekitaldi-emanaldi handitan (inauteriak eta sanjoanak barne) hiru txandatako talde osoa eta 6. taldeko partaide denak izango dira. Kasu honetan, gutxieneko zerbitzu hauek ezingo dira hartu arau gisa eguneroko zerbitzurako; aparteko uneetan bakarrik eman behar dira. Egun hauek egutegian morez azaltzen dira.*

*Gutxieneko zerbitzu hauetan, derrigorrez, udaltzainen plantillak 30 (+1) agenterekin osatua egon behar du.*

*G) Txanden arteko koordinazioa.*

*Agente lehenak 15 minutu lehenago sartuko dira txanda antolatzeko eta irteten den agente lehenarekin koordinatzeko.*

*H) Ordezkapenak buruzagitzan*

*Ofizialak eta ofizialordeak haien arteko ordezkapenak egingo dituzte eta biak batera falta badira, iraupen motzeko epealdiak badira, Alkatetzak edo Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak erabakiko du ordezkapena noiztik hasiko den. Dena den, iraupen luzeko baja bat denean, edo plaza hutsik geratzen bada, ordezkapena derrigorrez egingo da. Azken kasu horretan, ordezkapen sistema bat adostuko da ordezkarri sindikalekin.*

*I) Agente lehenak ordezkatzeko lehentasuna karrerako funtzionarioek izango dute. Horien artean antzinasun handiena duenak lehentasuna izango du. Karrerako funtzionarioek ez balego, antzinasunak ezarriko du lehentasuna.*

*Goizeko txandan agente lehena faltako balitz, buruzagitzak beteko du hutsune hori.*



### **3.- Opor, lizentzi, baimen eta antzinasun egunak**

#### **3.1.- Neurri orokorrak**

Orokorrean, ezin izango da inongo egunik hartu, ez oporreatatik, ez antzinasunetatik, ezta beste lizentziatikat ere, honako egun hauetan:

- Tolosan gertakizun garrantzizkoak direnean (inauteriak, hauteskundeak, azoka bereziak, sanjoanak...). Egun horiek morez daude egutegian.
- Abenduaren 24an, abenduaren 25ean, abenduaren 31n, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 5ean eta errege egunean.
- Abenduaren 18tik urtarrilaren 7ra arte gutxieneko zerbitzua bermatuta, oporrak, APak edo soberan egindako orduak errekuaratzeko har daitezke.

Gabonetan, hau da, abenduaren 18tik urtarrilaren 7ra arte, gutxieneko zerbitzuak urtean zehar dauden berberak izango dira.

Baimenak honako lehentasun hauen arabera emango dira:

- Norberaren edo familiakoen gaixotasunetatik dagokion lizentzia
- Oporrak
- Norbere gauzetatik
- Antzinasunetatik.
- Baimenak
- Pilatutako orduetatik

#### **3.2.- Oporrak**

Oporrak eskatzerakoan zerbitzu minimoak betetzeko gatazkarik balego, lehentasuna emango zaio pasa den urtean data berdinetan oporrik hartu ez zuenari. Biek hartu baldin bazuten, interesdunen artean zozketa egingo da.



*Hiru txandatan lan egiten dutenek ezin izango dituzte bi txanda berdin baino gehiago hartu urtean zehar. 7 eguneko goizeko eta gaueko txanda bana eta 5 eguneko arratsaldeko txanda bat.*

*Bi txandatan lan egiten dutenek 7 eguneko aste bat eta 5 eguneko aste bat hartu beharko dute gutxienez.*

*Gainontzeko udaltzainek Udalean indarrean dagoen hitzarmenaren arabera hartuko dituzte. Langile bakoitzak apirilaren 30 baino lehenago jakinarazi behar du oporraldia noiz hartuko duen. Geroago eskatutakoak emango dira, baldin eta gutxienerako zerbitzuak bermatuta gelditzen badira.*

### *3.3.- Soberako orduak*

*Pilatutako orduengatik baimenak 30 egun igaro baino lehen egin beharko dira. Horrela egiteko eragozpenik badago, beste 30 egunez luzatuko da aukera. Tartean beste egoera berezirik suertatuko balitz (gaixotasuna, oporrak edo antzeko zerbait) lanera bueltatzean hasiko da egunen kontaketa.*

### *3.4.- Orduak faltan*

*Egutegia 1.592 ordutara dago egokituta. Orduak faltako balira, horiek noiz bete markatuko da, langilearekin adostuta, 30 egun lehenago.*

### *3.5.- Norbere gaietarako egunak eta antzintasun egunak*

*Bakoitzari dagozkion egunen erdiak ekainaren 30erako egin behar dira eta besteak abenduaren 31 baino lehen, beti ere kontutan hartuta 3.1. puntuan ezarritako neurri orokorrak.*

### *3.6.- Aparteko orduen banaketa:*

*Langile guztiak egin ahal izateko, eta denek aukera berdinak izateko, zerrenda bat egingo da. Zerrenda horretan agente bakoitzak sartutako orduen kontrola eramango da. Aparteko orduak egiteko aukera dagoenean, irizpide hauek erabiliko dira nork egingo dituen erabakitzeko:*

- 1- Izena ematen dutenen artean lehentasuna izango du ordu gutxien egin dituenak.*
- 2- Ordu kopuru bera egin badituzte, zozketa bidez erabakiko da nork egingo dituen aparteko orduak.*

*\*Ordu horien konpentsaziorako, Udalhitz hitzarmenean ezarritakoa beteko da.*



#### **4.- Inauteriak eta sanjoanak**

*Data horiek bermatzeko, Udaltzainburuzagitzak, urte hasieran, urteko egutegiaren barruan ezarriko ditu egongo diren errefortzuak.*

*Egun horietan jai duten udaltzain guztiek udaltzainburuaren esanetara egon beharko dute, eta zerbitzu beharren arabera lanera etorri beharko dute.*

#### **5.- Zikloen aldaketak eta konpentsazioak:**

*Honako egoera hauek gerta daitezke:*

- *LANALDIAREN LUZAPENA: eguneko lanaldia luzatu beharra suerta daiteke zerbitzuaren **ezohiko** egoera baten aurrean. Horrelakoetan, Udaltzainburuzagitzak ezartzen duen konpentsazioa aplikatuko da.*
- *EZOHIKO ALDAKETAK: 6. taldetik (goiz eta arratsaldean) erreleboetako 3 taldera (goizean, arratsaldean eta gauean). Ezohiko aldaketak direnean, Udaltzainburuzagitzak ezartzen dituen konpentsazioak emango dira. Salbuespenez, 6. taldeko zenbait agenteri gau batzuk aurreikusi zaizkie programatutako egutegian. Kasu horietan, aldaketa horiek lanpostuen balorazioan jasota ez daudenez, jatorrizko lanpostuak eta beteko den lanpostuak berariazko osagarrian duten aldea ordainduko da.*
- *ASTEBURUETAKO ORDEZKAPENAK: aurreko paragrafoan ezarritako sistema berbera aplikatuko da.*

*Kasu hauetan guztietan, Tolosako Udalak orain indarrean duen barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioak dioenaren arabera aplikatuko dira konpentsazioak; hau da, ezohiko orduen kasuetan, egutegian aurreikusitako ez daudelako, dagokion atsedenaren bidez konpentsatuko dira Udaltzainburuzagitzak aplikatuta.*

#### **6.- Urteko egutegia amaitzean orduak faltan**

*Urtea bukatzean norbaitek ez baditu hitzarmenak markatzen dituen 1.592 orduak egin, hurrengo urtean bete beharko ditu, udaltzainburuzagitzak ezarritakoaren arabera.*



### **7.- Interpretazio zalantzak**

*Interpretazio arazorik gertatuko balitz, alkateak edo Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak ebatziko du, ordezkari sindikalei entzun ondoren.*

### **8.- Iraupena**

*Urtebete».*

**BIGARRENA.-** Seigarren lantaldeko lan-txandak hornitzeko honako bost udaltzain hauek proposatzea: F.J.M.S. (071G0012), I.A.Z. (071G0023), J.A.G.L. (071G0052) , M.C.C. (071G0033) eta I.G.M. (071G0028). Halaber, seigarrena geratu den I.V.G. (071G0053) udaltzaina erreserbako zerrendan geratzea, hutsuneak edo aldaketak sortzen diren kasuetarako.

**HIRUGARRENA.-** Seigarren txandako udaltzainei behin-behineko balorazio hau aplikatzea 2024ko otsailaren 1etik aurrera:

- Soldata: C1 taldea
- Destino osagarri maila: 19
- Berariazko osagarria: 24.120.25 euro
- Urteko ordainsaria: 43.683,02 euro gordin urtean

**LAUGARRENA.-** Akordio hau udaltzainburuari eta ordezkari sindikalei jakinaraztea.

### **3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

#### **2024/125 DEKRETUA: 2023/67 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2024/125 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:



### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

67. zenbaki duena, 204.530,03 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Jarduneko Zinegotzi Delegatu honek

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

67. zenbaki duena, 204.530,03 eurokoa.

**BIGARRENA.**- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



TOLOSAKO  
UDALA

2024IGBA0004

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 18:55ean.**

ALKATEA

IDAZKARIA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: [udate@tolosa.eus](mailto:udate@tolosa.eus)

16

[www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa1c75234-2557-4761-b817-035d234c745e**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>





## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0004-2024-01-29 Gobernu batzarra akta/2024-01-29 Gobernu